

Donosti 'n Gipuzkoa 'ko Aldundi - Jauregian, 1922 'ko Joñaila 'ren 27 'an.

Leñoan izendatzen diran euskaltzain jaunak batzaraldian bildu dira: Azkue, maipuru, Eleizalde, Kampion, Lakonbe, Landeñetxe, Intza, Altube, Eguskitza, Olabide, Intzagarai; urgazlerik batez.

1. *Jaur sailak* erabaki ta Euskaltzaindia'k onetsi dituenak, abetxek dira. a) Aita Añiandiaga'k aurkestu duen *Geometria* ez da onetsi. Intzagarai'n bitartez lan orixe Euskaltzaindia'n agertu zan ezkeru, euskaltzain onek Aita Añiandiaga'ri erabaki auxe gaztigatu bezayo. b) Lekaroz'ko Aita Etxalar' urgazle jaunak *Erizkizundi Irukoitzari* dagozkiyon lanak bidali ditu. Aita beronek dasa, datoñen udara-aldean lan oyek beriztuko dituela, ta lengo lan ta eskeintza onetxegatik, berari eskeñaldiak agertu beañ zaizkiyo. d) Añeko batzaraldiyaren erabakiz, Euskaleñi'ko apaizburu edo *Arcipresteai* beren barutiko ikasgoen zerenda eskatu zitayen. Añasate - Geñnika - Ondañoa ta Bermeo'koak erantzun dute, ta auxe izpañgietan azaldu beañ da, beste *Arcipreste* jaunak, orain arte erantzun ez dutenak, ikusi dezaten.

2. *Ikeñ-sailaren* aburuz ta Euskaltzaindia'k onetsita, auñerantzean eñderazko *poligono* esateko euskeraz *eñtz* erabili bedi, ta *edro* esateko beñiz *egal*. Elgezabal urgazle jaunak *Diccionario de la Rima* egiteko arñdura beregain arñtu du.

3. Napañoa 'ko Aldundi 'ak Euskaltzaindia 'ri *3.000 peseta* sorozpidetzat emango dizkiyo. Beñi auxe euskaltzañak pozik entzun dute.

4. *Eusko - Ikaskuntza*'k Euskaleñi'ko *Mapa* bere ardurapean darabilki. *Mapa* oñen eñi, mendi, ibai ta abaren izenak artez ipintzeko, Euskaltzaindia areratu zan. Lan auxe onela zatitu liteke: Bizkaik'ko euskaltzainak Bizkañi'ko ta Araba'ko zatiak arteztuko dituzte; Gipuzkoa'koa, Olabide ta Intzagarai'k; Napañoa'koa, Kanpion ta Intza jaunak. Eñi baten izena bi eraz daforenean; bat idazten dana, bestea beriz eñiak abotan darabilkiena; esate baterako, *Lemona Lemua - Zestona Zestua - Añona Añua*, *Mapa* oñtan euskaltzainak idazten dana bakaña jañi bezate, ez eñiak abotan darabilkien ori.

5. *Erikizundi Irukoitzaren* auferapenerako auxe on litzakela deritza: Eñi nagusitan, bertara euskaldunak biltzen diran egunetan, bateko ta besteko gizonak deitu, ta oyetaz *Irukoitzako* utsunak bete, ofetarako euskaldun-gizon oyek zerbaitez sariturik. 10 edo 20 pesetaz.

6. Olabide jaunak bere lan eder bat irakuñi du. Lan auxe lengo batzaraldian egotzi zitzayon. *Aditz-jokearen* bildegi-auretik joan bear duen lana da; adibide-idazki bezela.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta, oizko otoitzez, amai eman zayo batzaraldi oni.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1922'ko Joñaila'ren 28'an.

Len aipatu diran euskaltzain berak batzaraldian bildu dira: Azkue jauna maipuru.

1. Euskal-aditz-jokerak biltzeko, ingitxo batzuek